



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## KOLONBIAKO EGOERARI BURUZKO ADIERAZPENA

Joan den apirilaren 28an, Kolonbiako herria kaleetara irten zen bidezko bizibaldintzak exijitzeko, Iván Duqueren gobernuaren zerga-erreformaren kontra protestatzeko eta herrialdeak justizia soziala eta bakea izan ditzala aldarrikatzeko.

Harrezkerotik, Lanuzte Nazional mugagabeen dago, eta, harrezkerotik, gobernuak errepresio basatiarekin erantzun die legitimoki protestatzeko euren eskubidea baliatzen ari diren eta bizitza duina eta giza eskubideak errespetatu daitezzen exijitzen ari diren pertsonen.

Sistema demokratikoetan, oinarritzko eskubideetakoak da gizarte-protestarena, eta Estatuak errespetatu eta bermatu egin behar du eskubide hori.

Bermatu egin behar du herritarrek bakean aldarrika ditzaten haien eskaerak, bai herritarren oinarritzko beharrak asetzeko bidea emango duen bidezko zerga-sistema progresibo baten aldekoak, bai Bake Akordioak benetan eta osoki betetzearen aldekoak, batik bat, bake egonkor eta iraunkorra lortzeko bidean aurrera egiteko.

Hainbat plataformak adierazi dutenez, Lanuzte Nazionala hasi zenetik, polizia-indarkeriaren kasu ugari berri eman dira: herritarren erailtzeari, zauritzea eta bidegabe atxilotzea, Indar Publikoak sexu-indarkeria erabiltzea... Inolako zalantzarik uzten ez duten irudi ugari grabatu dira herrialdeko hainbat hiritan etxeko bideoetan: herritarren aurka suzko armak erabiltzen ageri da Indar

## DECLARACIÓN SOBRE LA SITUACIÓN EN COLOMBIA

El pasado 28 de abril, el pueblo colombiano salió a las calles en demanda de condiciones de vida justas, en contra de la reforma tributaria del Gobierno de Iván Duque y en la exigencia de un país en paz con justicia social.

Desde entonces se encuentran en Paro Nacional indefinido y desde entonces, la respuesta del Gobierno ha sido una brutal represión contra las personas que legítimamente están ejerciendo su derecho a la protesta, exigiendo una vida digna y el respeto a los derechos humanos.

En un sistema democrático uno de los derechos fundamentales es el de la protesta social y éste debe de ser respetado y garantizado por el Estado.

Debe garantizarse la reivindicación pacífica tanto de las demandas sociales por un sistema tributario justo y progresivo que permita cubrir las necesidades básicas de la población, como en las que exigen un desarrollo real e integral de los Acuerdos de Paz, fundamentalmente para el avance hacia una paz estable y duradera.

Según diversas plataformas desde el inicio del Paro Nacional se reportan múltiples casos de violencia policial, personas asesinadas y heridas, detenciones arbitrarias, violencia sexual por parte de la Fuerza Pública, siendo muchas las imágenes grabadas con videos caseros en las diversas ciudades del país que no dejan lugar a dudas y muestran a una Fuerza Pública que usa



Publikoa, errepresio bortitz eta indiskriminatuan.

Horren aurrean, ezin egon gaitezke isilik.

Kolonbiako herritarrak errepresioa jasaten ari dira, Polizia Indarrak erreprimitzen, jazartzen, zauritzen eta erailtzen ditu; horrenbestez, gobernuari gogorarazi behar diogu bere erantzukizuna dela Giza Eskubideak babestea eta bermatzea, bizitzeko eskubidea eta segurtasun pertsonala izatekoa barne, baita bakean biltzeko askatasuna izateko eskubidea baliatzeko bidea ematea ere.

Horregatik guztiagatik,

- Salatzen dugu legitimoki kaleetan protestan ari direnen aurkako errepresio basati eta bidegabea.
- Iván Duqueren gobernuari eskatzen diogu Kolonbiako herritar guztiei Giza Eskubideak baliatzea babes eta berma diezaiela.
- Exijitzen dugu Indar Publikoak egindako indarkeria-kasu guztiak argitu daitezela, eta dagozkien erantzukizunak defini daitezela, haren maila ofizialetan zein horretarako aginduak eman dituzten gobernuko mailetan.
- Elkertasuna agertzen diegu protesten kriminalizazioaren ondorioak sufritu dituzten eta sufritzen ari diren pertsona guztiei.

armas de fuego contra una población, en una represión violenta e indiscriminada.

Ante esto, no podemos permanecer callados.

La población colombiana está siendo reprimida, perseguida, herida y asesinada por la Fuerza policial y por tanto debemos recordar al gobierno que es su responsabilidad proteger y garantizar los Derechos Humanos, incluido el derecho a la vida y a la seguridad personal, y de facilitar el ejercicio del derecho a la libertad de reunión pacífica.

Por todo ello,

- Denunciamos la represión brutal e injustificada contra quienes legítimamente protestan en las calles.
- Instamos al Gobierno de Iván Duque que proteja y garantice el ejercicio de los Derechos Humanos de toda la población colombiana.
- Demandamos el esclarecimiento de todos los hechos de violencia protagonizados por la Fuerza Pública y que se definan las responsabilidades que correspondan, tanto en los niveles oficiales de las mismas como en aquellos gubernamentales que han dado estas órdenes.
- Expresamos nuestra solidaridad con todas las personas que han sufrido y sufren las consecuencias de la criminalización de la protesta.



- Salatzen dugu mobilizazioetatik kanpoko zenbait taldek indarkeria areagotu den unea balia dezaten ondasun komunak arpilatzeko eta haiei erasotzeko, bai eta ekintza horiek gizarte-protestak kriminalizatzeko balia daitezen ere.
- Elkartasuna agertzen diegu Kolonbiako herriei, bizi-baldintzak benetan hobetzeko beren eskaera bidezkoetan eta herrialdeak justizia soziala eta bakea izan ditzalako exijentzietan.
- Denunciamos la utilización por parte de grupos ajenos a las movilizaciones del momento de escalda de la violencia para saquear y atacar bienes comunes y también la utilización de estos actos para criminalizar la protesta social.
- Expresamos nuestra solidaridad con los pueblos de Colombia en sus justas demandas por una mejora verdadera de sus condiciones de vida y en sus exigencias de un país en paz con justicia social.

Nazioarteko komunitateari eskatzen diogu elkartasuna ager diezaiola Kolonbiako herriari, eta behar diren ekintza diplomatiko eta politikoak egin ditzala Iván Duqueren gobernuaren aurrean errepresioa amai dezan eta Kolonbiako herriaren Eskubideak errespetatuz.

Solicitamos a la comunidad internacional que realice expresiones de solidaridad con el pueblo colombiano, así como las acciones diplomáticas y políticas necesarias ante el Gobierno de Iván Duque para el fin de la represión y el respeto de los Derechos del pueblo de Colombia.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 28an.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de mayo de 2021.